



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusia

Berdintasun Zuzendaritza Nagusia

Dirección General de Igualdad



berdinbidean
GIPUZKOA



1. ZER DA BERDINBIDEAN GIPUZKOA?

Berdinbidean egitasmoa xedea, Gipuzkoako 10.000 biztanletik beherako herrietan berdintasun politikak sustatzea eta sendotzen laguntzea da.

Horretarako Gipuzkoako Udalerri txikietako udalei aholkularitza tekniko eskaintzen zaio. Zerbitzu honek bi helburu ditu: berdintasun politikak garatzeko eta indartzeko laguntza hurbiletik eskaintzea eta egiten den lanaren egonkortasuna eta sendotasuna bilatzeko pausoak ematen laguntzea.

2. ZERGATIK JARRI ZEN MARTXAN?

Herri txikiek berdintasun politikak garatzeko zailtasunak gehiago dituzte, besteak beste berdintasun teknikaririk ez dutelako. Hori kontutan izanda, Berdinbidean abian jarri zen udal txikiei laguntza eta bultzada emateko asmoz.

Zer du helburu?

1. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko politikak abian jartzea eta finkatzen joatea Gipuzkoako udalerri txikiagoetan.
2. Berdintasun arloko esperientziak hurbiltzea zein elkartrukatzea eta jarduera bateratuak erraztea udalerrien artean edo eskualdeka.
3. Udalen eta eskualdeen jarduerak Gipuzkoako Foru Aldundiko berdintasun politikekin koordinatzea, udalerrietan antzemandako beharrei erantzuteko.

3. ZERBITZUAREN IBILBIDEA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eudelen lankidetzaz, 10.000 biztanletik beherako herriei zuzendutako Berdintasun Arloko Aholkularitza Zerbitzua jarri zuen martxan, 2010.urtean *Berdinlagun* izenarekin. Urtebete geroago, eta Gipuzkoan hasitako ibilbidea jarraituz, antzeko egitasmoak jarri ziren martxan Bizkaian eta Araban. Horrekin batera Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundea ere gehitu zen proiektu honetara.

Ondorioz, gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundiak jarraitzen du *Berdinbidean Gipuzkoa* egitasmoa sustatzen, garatzen eta ekonomikoki eusten. Emakundek, bere aldetik, ekintza zehatz batzuk ordaintzen ditu eta hiru lurraldeen koordinaziorako eta elkar trukaketarako gunea sortu du.

Hasieran emandako pausoak, Gipuzkoako herri txikien errealitatea ezagutzera zuzendu ziren, herri txiki gehienekin kontaktuak mantenduz, beraien errealitatea ezagutzuz, zituzten interesak eta lan aukerak identifikatuz eta zerbitzua ezagutzera emanaz. Lan honen ondorioz, modu egonkorrago baten zerbitzuarekin lanean hasi nahi zuten herriak identifikatu ziren eta hauetako batzuk, gai ezberdinen inguruan proiektu estrategikoak garatzen hasi ziren zerbitzuaren laguntzarekin.



Bi urtetan zehar Berdintasun politikak garatzeko aukerak zituzten herriak identifikatu eta beraiekin emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko ekimen ezberdinak burutu ondoren, lurralde mailan modu integral eta jarrian lantzeko 4 lan ildo nagusi identifikatu ziren:

Berdinbideanen baitan eta herriekin izandako harremana oinarri hartuta, herriekin lantzeko 4 lehentasunezko gai identifikatu ziren:

- Emakumeen jabetzea eta partehartze soziopolitiko
- Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei arreta
- Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteekin
- Zaintza lanak

2013.urte hasieran, 4 gai hauek lantzeko mintegiak antolatu genituen, Gipuzkoako 10.000 biztanletik beherako herri guztiei gonbidapena luzatuz eta Berdinbideanen baitan aritzeko hauetan partehartzea beharrezkoa zela azpimarratuz. Bi mintegi burutu genituen gai bakoitza lantzeko. Gaiaren inguruan gutxieneko jakintzak partekatzea eta hauek lantzeko herriekin egin beharreko lana zehaztea ziren mintegi hauen helburuak.

Guztira Gipuzkoako 30 herrietako ordezkari politiko zein teknikoek parte hartu zuten. Lan mintegi kolektibo hauetan lan ildo bakoitzeko helburuak finkatu ziren:

Emakumeen jabetzea eta partehartze soziopolitiko: Gipuzkoako herri txikiek emakumeen jabetzea eta partehartze sustatzeko guneak martxan jartzea.

Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei arreta: Lan kolektiboaren bitartez, indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei zuzendutako arreta zerbitzuekin, herri txikien errealitate eta behar espezifikoari erantzuna emango dion eredu definitzea eta martxan jartzea.

Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteekin: Herritarrek eta bereziki gazteek indarkeria matxistaren kontzientzia hartzea eta aurre egiteko tratu onak eta eredu baikorrak bultzatzea.

Zaintza lanak: Zaintzaren inguruko hausnarketa bultzatu eta lan honetaz arduratzen diren emakumeen interes praktiko eta estrategikoei erantzun bat emateko berdintasun politikak garatzea.

Lan ildo bakoitzeko helburuak eta plangintza orokorra zehaztu ondoren, mintegietan parte hartu zuten herriei lan ildo bakarra lantzeko aukera eskaini zitzaion, Berdinbideanen baitan bete beharreko gutxieneko **baldintza** hauek aurkeztuz:



1. Berdinbidean programan parte hartzeko konpromiso onarpen orria **alkateak sinatzea**.
2. Berdinbidean programarekin elkarlanean aritzeko Udaleko **arduradun teknikoa eta politikoa izendatzea**, berdintasuna bultzatzeak suposatu dezakeen lan zama kontutan hartuz.
3. Berdinbideanek Berdintasun Politiken inguruan antolatuko dituen **prestakuntza-hausnarketa saioetan** Udaleko ordezkari politiko (alkatea eta arloen ardura daukaten zinegotziena) eta teknikoen partehartzea zihurtatzea. **2 orduko 2 lan saio** egingo dira Berdinbidean programan parte hartuko duen udal/mankomunitate bakoitzean.
4. Lan plangintza garatzeko Berdinbideanetik definitzen diren **bilera eta foroetan** Berdintasun Arloaren/gaiaren arduradun politikoak eta teknikoak partehartzea.
5. Berdinbideanen baitan adostutako **lan plangintza**, herriari egokituta, **burutzea**.
6. Martxoak 8, Ekainak 28 eta Azaroaren 25ari begira Berdinbideanen baitan landu eta adostutako **deklarazio instituzionalaren onarpena** burutzea Udal plenoan.
7. Datorren urteko **aurrekontuan** jorratu nahi diren lan ildoen arabera partida zehatz bat jasotzea berdintasun politikei zuzendua:
 - 2.000 biztanletik beherako herriek: 1.500 euro lan ildo bakoitzeko
 - 2.000-5.000 biztanleko herriek: 2.000 euro lan ildo bakoitzeko
 - 5.000-10.000 biztanleko herriek 3.000 euro lan ildo bakoitzeko

Mintegietan parte hartu zuten herriek egindako aukeren arabera, 2013-2014 ikasturtean Berdinbidean programaren baitan *“Emakumeen Jabetzea eta Partehartze Soziopolitikoak”* eta *“Indarkeria matxistaren prebentzioa gazteekin”* lan ildoak hasi ginen lantzen.



4. GAUR EGUNGO LANA

Berdinbidean programak lan ildo hauen garapenarekin, herri txikietan berdintasun politikak garatzea eta sustatzea du helburu. Horretarako, udalerrri txikiei zuzendutako lana 3 elementutan oinarritzen da:

- Lan mintegi kolektiboak

Udalerrietako ordezkari politiko zein teknikoei zuzendutako lanerako gune kolektiboak dira. Bertan, udalerrri txikietan berdintasun politikak sendotzeko estrategiak adosten eta esperientziak elkartrukatzen dira.

- Herrietan interbentzio zuzenak

Herriarrei zuzendutako lan prozesuak jartzen dira abian. Martxan dauden bi lan ildoen kasuan, lehenbizikoak emakumeei zuzendutako ekimenak bultzatzen dituen bitartean, bigarrean, herriko neska eta mutil gazteei zuzendutako interbentzioak burutzen dira.

- Aholkularitza eta jarraipen lana udaletan

Hausnarketa eta lanerako gune kolektibo eta herrietako interbentzio zuzenez gain, Berdinbideanek tokian tokiko aholkularitza eta laguntza eskaintzen du berdintasun politiken garapena udal bakoitzaren errealitatera egokitzeko. Hala nola, programaren jarraipenerako bilerez gain, hausnarketa-kapazitazio saio ezberdinak eskaintzen dira udaletako teknikari zein politikarientzako.

Guztira **18 herri** partehartzen dute Berdinbidean programan aipatutako bi lan ildoak garatzen. Baina zer da zehazki lan ildo hauekin Gipuzkoako Foru Aldundiak herriei eskaintzen diena?

EMAKUMEEN JABETZEA ETA PARTEHARTZE SOZIOPOLITIKOA

Nork partehartzen du lan ildo honetan?

Saiatz Mankomunitatea (Bidegoian, Errezil, Albiztur, Beizama)	Anoeta Alegi Zizurkil Asteasu Getaria
--	---

Zein da burutzen den lana?

Lan ildo honek emakumeen jabetzea eta partehartze soziopolitikoak sustatzen duten guneak martxan jartzea bilatzen duen heinean, lurraldean dagoeneko martxan dauden Jabetze Eskolak hartzen ditu lan plangintzaren oinarri. Emakumeei zuzendutako ekimen ezberdinak antolatzen dira, betiere hauen jabetze prozesuak errazteko asmoarekin.



Horretarako, herriko emakumeei zuzendutako ikastaro, mintegi, tailer edo eztabaidak eskaintzen dira, hala nola, autodefentsa tailerrak, zineforum-ak, subjektibitate femeninoaren inguruko ikastaroak... Guztira 200 emakume inguruk parte hartu dute burututako ekimen ezberdinetan.

Lan ildo honetan mintegi kolektiboak hasieratik planteatu ez izan arren, ikasturteak aurrera egin ahala, espazio kolektiboaren beharra eta zentzua geroz eta ageriagoa egin den zerbait izan da. Horrela, 2014ko maiatzatik aurrera mintegi kolektiboak izango dira ildoaren baitan burutzen den lanaren motorra.

Herrietan bertan burututako aholkularitza eta jarraipen lanari dagokionez, udal guztietako pertsonal tekniko zein politikolari eskainitako lan saioak eta maila lokalean sortutako interlukuzio guneak izan dira burututakoaren oinarria.

GAZTEEKIN INDARKERIA MATXISTA PREBENITZEKO LAN ILDOA

Nork partehartzen du lan ildo honetan?

Bideberri Mankomunitatea (Leintz Gatzaga, Elgeta, Antzuola)	Segura Legorreta Itsasondo Irura Zaldibia Urnieta
--	--

Zein da burutzen den lana?

Gazteekin indarkeria matxista prebenitzeko eta tratu onak bultzatzeko prozesuak abian jartzea da lan ildo honek bilatzen duen helburua. Herriko gazte talde bat identifikatu eta beraiei zuzendutako hausnarketa, eztabaida eta sormen saioak antolatu dira, indarkeria matxistari aurre egiteko alternatibak landuz eta tratu onak bultzatuz. Guztira 55 neska eta 40 mutil inguruk parte hartu dute herrietan abiatutako lan prozesuetan. Genero rol eta estereotipoak identifikatu, hauetaz hausnartu eta harremanak eraikitzerakoan tratu on eruedetan sakontzeko, saio ezberdinak bideratu dira herri guztietan.

2013- 2014 ikasturtean, 8 lan mintegi kolektibo burutu dira, hauetan herrietako ordezkari tekniko zein politikoei bideratutako kapazitazioa errazteaz gain, martxan jarri beharreko prozesuen ibilbideak definitu dira.

Zuzenean gazteekin bideratutako prozesuak behar zehatzei egokitze aldera, hausnarketa guneak bultzatu dira herri bakoitzean, udaletako ordezkari politiko zein teknikoekin.



5. BALORAZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Berdintasun Politikak herrialdean modu integral eta koherentean lantzeko helburuarekin, herriekin zuzeneko hartuemana bilatu du Berdinbideanen bitartez. Lan hau gune kolektiboak bultzatuz eta aldi berean herri ezberdinetako berezitasunei erantzun bat emanez gauzatu da.

Eragile ezberdinen artean bultzatutako programa izanik, prozesuan zehar komunikazio eta koordinazio lanak sendotzeko estrategiak beharrezkoak izan dira eta errealitate ezberdinak eta bidean zehar eragindako behar zehatzei erantzun bat emateko planteatu dira. Horrek parte hartu duten eragile guztien inplikazioa eta dedikazioa eskatu du.

Illdoen inguruan diseinatutako lan eredua, herrien arteko sare lana errazteko baliagarria da eta epe ertainera sare lan hori emaitza zehatzetan gauzatzeko aukerak identifikatzen hasteko bidea errazten du. Ildo bakoitza 3 elementutan oinarritzean (lan mintegi kolektiboak, herrietako interbentzio zuzenak eta aholkularitza eta jarraipen lana udaletan) prozesuaren ezaugarrien arabera hiruren arteko oreka bilatzea ezinbestekoa izan da.

6. AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

Urteetan zehar egindako lanak diseinatutako dinamiken moldatzea eta programaren helburuen zehaztasuna handitzea ekarri du. Helburuak gehiago zehaztean epe motz eta ertainera lortu beharreko emaitzak errezago identifikatzea lortzen da, jarraitu beharreko pausoak definitzeko bidea erraztuz:

- Sortutako lan gune eta espazioak mantentzea eta indartzea.
- Berdinbideanen baitan egindako lanak udal politiketan modu integralean eragiteko bideak bilatzen jarraitzea.
- Berdintasun politikak garatzeko udalen autonomia indartzeko bideak errazten jarraitzea.
- Herritargoarekin martxan jarritako prozesuen jarraipena egitea.
- Berdintasun politikak herri txikietan bultzatzeko lan eredu egokiak finkatzea, esperientzia zabaltzeko eta praktika onak sustatzeko balioko dutenak.

2014ko apirilak